



Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako Zuzendaritzak, jakinarazten du Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru-banatzailen 2023ko ekitaldiko (EKD-2023) Estatistika-Kontabilitate Dokumentazioa telematikoki izapidetzeko aplikazio informatikoa martxan egongo dela 2024ko martxoaren 20tik, apirilaren 30era bitartean, biak barne.

Aplikaziora Ekonomia eta Ogasun Sailaren ataritik sartuko da, www.euskadi.eus atariaren bidez, eta trazadura hau izango du: euskadi.eus; Eusko Jaurlaritza; sailak eta erakundeak; Ekonomia eta Ogasuna; Finantza Politika; Aseguru Bitartekariak; Estatistika Aitorpena egiteko aplikazioa deskargatzeko informazioa; edo, zuzenean, [aseguru eta berraseguru banatzaileen erregistroaren bidez](#). Erregistro horretan, hura egiteko jarraibideak ere egongo dira, edozein kasutan, kontsultatzeko.

Estatistika-Kontabilitate Dokumentazioa deskargatu eta bete ondoren, Eusko Jaurlaritzara bidaliko da, [Eusko Jaurlaritzara bidaltzeko](#).

Ahalik eta arreta handienarekin jarduteko, EKD-2023 betetzeko epean sortzen den edozein gorabehera edo zalantza, honako helbide honetara bidali beharko da lehenatasunez: mediadoresdeseguros@euskadi.eus. Zalantzak ahalik eta lasterren argituko dira.

Era berean, kontsulta informatikoak, aplikazioaren deskargarako sarbidea eta identifikazioa ELZra (Eusko Jaurlaritzaren Erabiltzaileen Arretarako Zentroa) egin ahal izango dira, **945 01 68 38** telefonoan, kontsulta aseguru-bitartekarien aplikazioari buruzkoa dela adierazita (P06b - Aseguru-bitartekariak).

Indarrean dauden ziurtagiri digitalen mantentze-lanetan arreta handia jarri behar dela berresten dizuegu. Hau da, aplikaziora sartzeko, datuak sartzeko eta EKD bidaltzeko Erabiltzailearen Eskuliburuaren aurretiazko betekizunen atalean ezarritakoaren arabera onartutako ziurtagirien kasuan, bai eta www.euskadi.eus/web01-tramite/eu/contenidos/informacion/certificados admitidos/eu_cert_ele/index.shtml arauaren arabera onartutako ziurtagiri digital pertsonalen kasuan ere.

Azkenik, adierazi behar dizuegu Euskadiko Bitartekarien Elkargoak zurekin lankidetzan aritu daitezkeela kontabilitateko estatistika-informazioa lantzeko eta Eusko Jaurlaritzari bidaltzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 20an
Vitoria-Gasteiz, a 20 de marzo de 2024

Finantza Politikako zuzendaritza /
Dirección de Política Financiera

Izpta./Fdo.: Arantza Larrauri Aranguren